

Adio neguari

Azken bost urteetako negu hotzena atzean utzi dugu. Hala ere, ez da uste bezain gogorra izan. Euria, hotza, ipar haizea eta tartean-tartean elurra izan bada ere, ohikoa izan da.

Oro har, aurreko urteetan aldaketa gogorragoak izan dira. Bi egun hotz eta hurrengo egunak epelagoak. Aurten aldaera gutxi izan dira, baina hotz konstateagoa. Horrexegatik iruditu zaigu negua hotzagoa eta luzeagoa izan dela.

Batez ere hezetasuna handia izan da, %80 ingurukoa gutxi gora behera. Hezetasun horren ondorioz lur eta haize bustia izan da. Horrexegatik iruditu zaigu negua luzea eta hotza izan dela.

Hurrengo hiru paragrafo hauetatik, zein da testuko iritzia?

1. Aurtengo negua azken 5 urteetakoak baino epelagoa izan da, baina hezetasunagatik gogorragoa izan dela iruditu zaigu.
2. Aurtengo negua oso lehorra eta hotza izan da, azken 30 urteetakoak gogorrena. Baina hotza ez da izan oso konstantea: egun gutxitan kontzentratu da.
3. Aurtengo negua azken bost urteetako negurik gogorrena izan da, baina ez da izan apartekoa, gogor-gogorra. Gainera hezetasunak hotz sentrazioa handitu egin du eta hotz hau konstanteagoa izan da.

ERANTZUNA;

Hirugarren aukerak jasotzen du ondoen ideia nagusia.